

Franzisko Oianguren
Bergara, Gipuzkoa (1859)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Udal-idazkaria zen eta 54 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.222

Zintak

BER-330

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-23
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Askasuko albergarako jausi zenekoa

- **Erref:** BER-330/001
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:21

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Bi lagunen arteko elkarrizketa. Aurreko urteko ibilaldi batean bizitakoak kontatuz.</p>

Transkripzioa

Mutillak! Guazan oaintxen danok igari eitera osiñera, eta gero... San Marsalera, bidian keixak jangu jittuau; gastanapian meriandau bapo eta... gero mortalak eiñgo jittuau ... ik, Patxiko, ik atarako dok aureskua eta nik atzeskua. Badakik zein ekarriko diogun Bartolori aureskura?

- Zein?

- Biktorianatxo...

- Ja, ja, ja...

- Akordatzeaiz, Andres, juan dan urtian zer lekia arrapau genduan?

- O...!

- Bagatozak etxera eta illun jauan eta gutxien uste [...] blust! Askasuko Albergara jautsi nitzuan, nik urte najuan andik figuria! Bi edo iru trago egin najituan jabo ura.... bruuu...! Ondiokan ere etxatak juan agotik leguntasun aura.

Ala, guazan aguro, danboliria oaintxen ailegatzen goiaz Santa Mariñara, eta antxen egiñ biajittuau fandango bat edo bi eta [Mendaroko] tortak erosi eta etxera ... Biba gu ta gutarrak.

2. Kuban soldadu

- **Erref:** BER-330/002
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:01:21. **Bukatu:** 00:01:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Kuban soldadu dagoen baten gutuna heldu da etxera eta bertan zer kontatzen duen.</p>

Transkripzioa

Basarritar batzuk pastelerixako onduan zauden mezian, beatzitakuan zain, eta batek esan dio bestiari:

- Semian berririk ba ai dezu, Kosme?

- Zein?

- Kuban soldadu dagona.

- Bai. Ba, lengo egunian euki juau beran karta.

- Enda, zer abisatzen dau?

- Ba, eztakit zer, baña gradu aunditan sartu izan bear dau.

- Zer ba, opiziale edo teniente, edo...?

- Ez, geiao, geiao [izan biar dau]. Kapitan edo enkomendante?

- Ez, ez, ez... ; a! Ointxen etorri jat burura... asistente dagola edo abixatzen dosku].

Oianguren, Franzisko | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com